

# BABESKI-D

**Derioko Udalaren programa, Ume eta nerabeak  
modu integralean babesteko kirolean, aisialdian  
eta denbora librean**



---

*Derioko Udalaren Hiritartasun Arloa*

---

## Aurkibidea

1. Sarrera .....	2
2. Testuingurua.....	2
3. Kontzeptuen esparrua.....	4
4. Legegintza esparrua.....	5
Nazioartekoak.....	6
Estatukoak .....	6
Autonomia Erkidegokoak.....	6
Tokikoa.....	7
5. Umeak eta nerabeak babesteko programa .....	8
I. Prestakuntza .....	8
II. Parte-hartzea eta autonomia .....	9
III. Legeak .....	12
IV. Detekzio goiztiarra eta indarkeria kasuetarako jarduketa eta prestaketa .....	13
V. Komunikazioa.....	14
6. Ondorioak .....	15
7. Bibliografia .....	16
8. Eranskinak.....	17
I. Ekintzen taula.....	17
II. HAEEko ikastaroa .....	19
III. Topaguneak.....	21
IV. Topaguneko logoa .....	22
V. Erakunde adierazpena.....	23
VI. Arriskuen analisia .....	24

## 1. Sarrera

2022-2025eko Haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategian jasota dagoen bezala, umeen eta nerabeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da, eta giza, gizarte eta ekonomia kostu ikaragarriak sortzen ditu.

Lehen haurtzaroan indarkeria sufritzea esperientzia estresagarri eta mingarria da gizaki guztientzat epe motzean, eta ondorioak izan ditzake epe ertain eta luzean. Gainera, eragina du adingabeen garapen fisiko, psikiko eta psikoemozional ezin hobean.

Halaber, erakunde publiko guztiek, Derioko Udala bezalako toki erakundeek barne, betebeharrak etiko eta moralak dute neurri eta politika publikoak garatzeko arriskuan dauden ahur eta nerabeak detektatu, artatu, babestu eta egoerak konpontze aldera, eta herritarrak sentsibilizatu behar dituzte baita ere indarkeria ezaren eta haur eta nerabeen tratu onaren arloetan.

Derioko Udalak denbora darama umeen zuzendutako ekintzak garatzen tratu onen eta umeen eta nerabeen eskubideen promozioan oinarrituta, eta horietako batzuk dira “Haurren Kontseilua” eta “Eskolara Lagunekaz” ekimenak, besteak beste. Horrenbestez, programa honen bidez esparru teoriko, legegintzako eta laneko handiagora sortu nahi da eta eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzan eta kooperazioan oinarritutako politikak ere sortu nahi dira.

Azken finean, programa honen bidez umeen eta nerabeen aurkako indarkeria mota guztiak **prebenitu** nahi ditugu, udal zerbitzuetan eta haur eta nerabeekin lan egiten duten kirol, aisialdi eta denbora libreko elkarteetan sor daitezkeen indarkeria egoerak **detektatu** eta horietan **esku-hartu** nahi dugu, herritarrak **sentsibilizatu** nahi ditugu babesaren arloan, eta azkenik, tratu onen oinarritutako umeen eskubideak **promozionatu** eta **zabaldu** nahi ditugu.

## 2. Testuingurua

Aurreko legegintzaldia (2015-2019) hasi zenetik, Derioko Udala berregituratze eta kontzeptu hobekuntzako etengabeko prozesuan murgilduta dago. Hori dela-eta, Derioko Udala ez dago antolatuta tradizionalki ezagutu dugun moduan, izan ere, alkatetzaren eta zinegotzigoen artean Bostidi izeneko zuzendaritza taldea dago; bi politikariek eta hiru teknikariek osatzen dute eta zinegotzigoak multzokatuta dauden hiru arlo hauek

ordezkutzen dituzte: Lurralde, Antolamendua eta Herritarrak. Zuzendaritza talde honen helburua da agintaldian sortzen diren erabaki estrategikoak hartzea, eta ondorioz, Derioko bizilagunen bizi kalitatea hobetzen duten erabakiak ere hartzea. Esther Apraizek “2019-2023ko Kudeaketa Planean” hauxe esan zuen: “... atsedetik hartu gabe lan egitean datza, Derio are udalerrri hobegoa izan dadin. Guztientzako aukerak eskaintzen dituen udalerrria, gure elkarteei eta establezimenduei laguntzen diena. Derio modernoa, jasangarria, bizi-bizia, adinekoekin atsegina, gazteriaren eta enpleguaren aldekoa eta kulturaren, kirolaren eta berdintasunaren alde egiten duena. Derio solidarioa, eta besteak beste errespetuan eta aniztasunean batua”.

Horri lotuta, umeak eta nerabeak babestea “2019-2023ko Kudeaketa Planean” jasota dauden kontzeptuetako bat da, eta beraz, helburua da baita ere agintaldi politikoko plana betetzea Derioko Udala antolatuta dagoen hiru arloak barne hartzen dituzten estrategia tekniko bidez: Lurralde, Antolamendua eta Herritarrak hain zuzen ere.

Kasu honetan, Herritarren Arloa da kirola, aisialdia eta denbora libre sustatzeko eta Derioko bizilagunen gizarte babesa zaintzeko arduraduna. Horren barne dago umeen eta nerabeen parte-hartzea sustatzea, eta horretarako, Haurren Hirien Sarea proiektuan parte hartzen dugu eta bi proiektu hauek martxan jarri ditugu: Eskolabideak: Eskolara Lagunekaz eta Umeen Kontseilua.

Hala eta guztiz ere, umeak eta nerabeak osotasunean babesteaz hitz egiten badugu, ez du zentzurik bakarrik udal arlo bat izatea horrelako ekintzak egiten dituen. Horregatik, eta berregituratze eta etengabeko hobekuntza proposamenarekin berrelikatzen garen bitartean, Herritarren Arloa da ekintzak gidatzeko arduraduna, baina ekintza horiek zeharka barne hartzen dituzte gainerako arloak eta horien politikak. Hala, Francesco Tonuccik dioen eta Haurren Hirien Sareak bere agirietan jaso duen moduan, Deriok hiria aldatu nahi du bere osotasunean “umearen” parametrotik abiatuta (Haurren Hirien Sarea, 2017).

Beraz, proiektu honetan Derioko Udaleko askotariko lerro estrategikoak partekatzen dira, bermatzeko umeak eta nerabeak babestuta daudela udalerrian egiten den kirolean, aisialdian eta denbora librean. Agiri honetan Derioko ume eta nerabeak tokiko agenda politikoan jartzen laguntzen duten oinarritzko kontzeptu eta politikak jasota daude.

Gainera, agiri honen xedea da Derioko Udalak orokorrean, eta zehazki bere gobernu taldeak hartu duen konpromisoa ezagutaraztea, hau da, umeak eta nerabeak modu

integralean babestea, izan ere, ez dio bakarrik arreta jartzen egin beharreko lanari, baizik eta gaur egunera arte egin diren politika guztiak barne hartzen ditu.

### 3. Kontzeptuen esparrua

Zalantzarik gabe proiektu hau kontzeptu mailan testuinguruan jartzeko bi egitateetan oinarritu beharra dugu, zeintzuek nahiz eta beraien artean denbora igaro izan, umeak eta nerabeak legegintzaren erdigunean jarri dituzten. Hauek dira: Umeen Eskubideen Hitzarmena (NBE, 1989) eta Umeen eta nerabeen babes integralerako lege organikoa (LOPIVI, 2021 -siglak gaztelaniaz-), eta biek ere arlo oso zehatz hauek lantzen dituzte:

- **Diskriminaziorik eza:** Ume guztiek eskubide berberak dituzte. Arrazak, nazionalitateak, erlijioak eta sexu orientazioak ez dute axola.
- **Umeen interes gorenak:** Ume bati eragiten dieten erabakiek, proiektuek eta politikek bere ongizaterako onena dena kontuan hartu behar dute.
- **Bizirautea eta garapena:** Ume guztiek dute bizitzarako eta beren garapenean potentzial gehiena lortzeko eskubidea.
- **Partaidetza:** Ume eta nerabeek eskubidea dute eragiten dieten guztiari buruz galdetuak izateko. Kontuan hartu behar dira beraien iritzia.

Legeria biak nahitaez betetzekoak direnez, Derioko Udalak, toki erakundea den heinean, betebeharra du umeen eskubideak ezagutzea, errespetatzea eta zabaltzea sustatzeko estrategia eta ekintzak garatzeko. Beraz, herritarren arlotik betebeharrak, morala eta etikoa dugu “safeguarding” espazioak sortzeko; babesaren kulturari lotutako kontzeptua da, eta bere helburua da ikuspegia, paradigma eta tratua aldatzea (Rhind et al., 2015). Aurrekoak umeekin lotutako arlo, eskubide eta herritar guztiei eragiten die. Beharbada ohituak egonik babes espazioak sortzera (umeen babesgabetasun egoera baten ondorengo jarduketa kontzeptu murriztagoa), “safeguarding” espazioak sortzean, kontzeptuak aldatzen dira eta guztiok egon behar dugu prest esfortzu hori egiteko. Azken finean, umeak babestu eta ongi tratatzeko politikak eraiki behar ditugu. Era berean, paradigma aldatzean beste gauza batzuen artean arriskuak analizatzen dira, hau da, ume eta nerabeen ongizateari eragiten dion guztia, betiere umeen interes gorenaren parametrotik abiatuta.

Bestalde, toki erakundea garen heinean eta “safeguarding” politiketan oinarrituta, herritarrei gurekiko erakutsi diguten konfiantza itzuli behar diegu, bai arlo politikoan,

bai teknikoan (Rhind et al., 2015). Hau da, gure politiken gizarte balioa kontuan izan behar dugu. Proiektu honen kasuan gauzatu diren ekintzen analisi xehe kualitatiboa zein kuantitatiboa egin behar dugu, eta zehazki horiek jakinaraztea oso garrantzitsua da, aurrerago ikusiko dugun moduan. Ikerketa berriek (Vila et al., 2021) azaltzen dute hainbat bidetatik jakinarazi behar direla (erakundeak, ikus-entzunezkoak eta hirikoak, besteak beste tokiko telebista, tokiko prentsa, udalaren web orria, erakundeak, elkarteak eta abar.). Gure ustez, pedagogia zibikoa egitean eta udalerriaren komunitate garapena sustatzean datza.

Era berean, modu orokorragoan analizatu behar da Derio zein lekutan jarriko duten proiektu honetan proposatzen diren ekintzek. Hau da, proiektu honen bitartez agerian jarri nahi da zein garrantzitsuak diren udalerrriak gizarte eta hezkuntza arloan inplikatzeak konfiantza, elkarrizketa eta adostasuna, eta baita ere beharrezkoa eta egokia dela udalek gizarte eta hezkuntza politika zabalak martxan jartzea, zeharkakoak eta berritzaileak, lortu nahi den garapena errazteko, eta aurreko guztia Muñoz eta Gairínek (2015) eta Vila et al-ek (2021) jasotakoaren arabera.

#### **4. Legegintza esparrua**

Aurrerago aipatu dudan moduan, 1989an Nazio Batuen Erakundeak aho batez onetsi zuten Umeen Eskubideen Deklarazioa. Une horretatik aurrera askotariko legeria eta araubidea garatu da maila guztietan ume eta nerabeak eta beraien eskubideak babeste aldera.

Era berean, horri lotuta onetsitako legeen helburua izan da umeak eta nerabeak eta beraien eskubideak babestea eta adingabeak eskubidedun subjektu gisa hartzea, eta ez bakarrik eskubideen objektu gisa. Gainera, adingabeen interes gorena ezarri da erakunde jarduketara guztia arautu behar duen printzipio gisa. Hala eta guztiz ere, eskubidedun subjektuen eta adingabeen interes gorenaren kontzeptuak orain dela gutxi sartu dira legerian.

Horregatik guztiarengatik, ondoren nazioarteko, estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko legeria erreferentzia nagusiak ezarri ditugu; aurrekoak gidak dira tokiko administrazio publikoek garatu beharreko estrategiak planifikatzeko umeak eta nerabeak babesteari dagokionez.

## **Nazioartekoak**

- **Umeen Eskubideen Hitzarmena**, Nazio Batuen Erakundeko batzar orokorrak onetsitakoa New Yorken 1989ko azaroaren 20an eta Espainiak berretsitakoa 1990eko azaroaren 30ean.
- **Umeen Eskubideen Europako Gutuna**, Europako Parlamentuak onetsitakoa 1992ko uztailaren 8an.
- **Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna**, Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak eta Europako Batzordeak aldarrikatu zutena 2000ko abenduan eta 2007an berritu zena. 24. artikuluan jasotzen ditu “Umeen Eskubideak”.

## **Estatukoak**

- **1978ko Espainiako Konstituzioa**. 39. artikuluan jasotzen du agintaritza publikoek betebeharra dutela familien gizarte, ekonomia eta zuzenbideko babes bermatzeko eta horren barnean, bereziki adingabeena.
- **1/1196 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoarena**, partzialki aldatzen duena Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea (8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, aldatutakoa; administrazio publikoei esparrua ematen die umeen arloan politika integralak garatzeko).
- **Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa**.

## **Autonomia Erkidegokoak**

- **Euskal Autonomia Erkidegoaren autonomia estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Legea**; bertan EAEk bere gain hartzen du gizarte laguntza eta umeen politika eskumena.
- **27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoaren erakunde komun eta bere lurralde historikoen foru organoen arteko harremanena**; bertan ezarrita dago EAEko lurralde historikoen eskumena dutela erakunde komun legeria egikaritzeko gizarte laguntzaren eta ume eta gazteen politikaren arloetan.
- **3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, abenduaren 23ko 3/2009 Legeak aldatu zuena**. 1. artikuluan arabera legeak hiru helburu hauek ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide antolamendu osoak aitortzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango dituztela.
  - Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ezartzea, haurrek eta nerabeek familiaren eta gizartearen inguruneetan behar duten garapena bermatzearen.
  - Babesgabetasun edo arrisku egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere. Udal mailakoak.
- **Umeen eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal estrategia 2022/25**
- Helburua da tresna bat izatea herrialde ikuspegitik partekatutako iritzia eraikitzeko umeen eta nerabeen aurkako indarkeriari buruz, eta tresna horrek ahalbidetzea egunero askotariko eragileek norabide berberean aurrera egiteko gauzatzen duten lana, esperientzia eta ezagutza metatua egituratzea.
  - Estrategia horrekin lortu nahi dena da euskal erakundeak prestatuago egotea indarkeria forma guztiak prebenitzeko eta azkarrago detektatzeko eta goiz esku-hartzeko indarkeria egoeretan, horrela arreta eta babesa osatuagoak izan daitezen, sortutako kalte guztiak konpon daitezen, erakundeen arteko lankidetzak hobetu dadin eta aurrera egin dezagun erakunde arteko lankidetzak eta kooperazioa indartzen, errealitatea gehiago eta hobeto ezagutzen duena, ezagutza sortzen duena, modu iraunkorrean hobetzen dena eta kalitatezko arreta ematen duena.

## **Tokikoa**

- **7/1985 Legea, Toki araubidearen oinarriena**, eskumenen konstituzio banaketa bermatzen duena.
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeena**. EAEko autogobernuaren zuzenbide eta erakunde egituraren zutabeetako bat da, eta



bertan eskumenak finkatzen dira hiru maila hauetan: erakunde komunak, lurralde historikoak eta udalerrak eta gainerako toki erakundeak.

## **5. Umeak eta nerabeak babesteko programa**

Graduondoko “Unibertsitate aditua kirolean, hezkuntzan eta elkarbizitzan: umeak eta nerabeak babestea” practicumean egindako analisiaren ondoren, umeen eta nerabeen babesaren arloan esku-hartzeko 5 arlo hauek identifikatu dira: Prestakuntza, parte-hartzea eta autonomia, legeria, detekzio goiztiarra, indarkeria kasuetarako jarduketa eta konponketa eta komunikazioa. Aurreko guztien xedea da babes politikak sustatzea, eta horiekin ume eta nerabeei eskaintzea indarkeriarik gabeko aisialdiko, denbora libreko eta kiroleko espazioak. Horretarako, beharrezkoa da ekintza plan bat sortzea eta bertan zehaztea lan arlo bakoitzeko ekintzak, arduradunak, ekintzen maiztasuna eta ekintza plana sortu denean eginda dauden edo ez (I. eranskina). Beraz, dinamikoa izan behar da eta behar den guztietan eguneratu behar da.

### **I. Prestakuntza**

LOPIViren 5. artikuluan jasota dagoenaren arabera, “Administrazio publikoek, beraien eskumenen esparruan, prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta jarraitua sustatu eta bermatuko dute umeen eta nerabeen oinarrizko eskubideen alorrean, eta prestakuntza hori adingabekoekin ohiko harremana duten profesionalei emango die”. Beraz, Derioko Udalak langileak prestatzeko betebeharra du eta bermatu behar du ludotekako, gaztelekuko, kultur etxeko eta udal kiroldegiko kanpoko langileek prestakuntza jasotzen dutela umeak eta nerabeak babestearen arloan.

Modu horretan, kanpoko langileei egin zitzaizkien inkestan jaso zen umeekin lan egiten duten langileen % 88,2k ez duela LOPIVI legea ezagutzen. Era berean, inkesta bete zutenen % 95ek (barneko eta kanpoko langileak eta politikariak) ez dute inolako prestakuntzarik jaso umeak eta nerabeak babestearen arloan, nahiz eta guztiek uste duten horren inguruko prestakuntza jasotzea beharrezkoa dela.

### **Ekintzak**

- Prestakuntza plan bat sortzea 2022-2024 urteetan helburu hauek lortzeko.

- Herritarren arloko ardura duten **udal teknikariei prestakuntza ematea**, adibidez hauxe: “Unibertsitate adituak kirolean, hezkuntzan eta elkarbizitzan: umeak eta nerabeak babestea. Halaber, **umeak eta nerabeak babesteko ordezkari gisa izendatzea**.
- **Herritarren, lurraldearen eta antolamenduaren arloetako arduradunei prestakuntza ematea** umeak eta nerabeak babestearen arloan HAEEk eskaintzen dituen ikastaroekin (II. eranskina).
- **Udalerriko klubetako entrenatzaileei prestakuntza ematea** Athletic Club Fundazioaren bitartez, berak eta Derioko Udalak sinatutako hitzarmenarekin bat etorriz, edo udaleko umeak babesteko ordezkariaren bidez.
- Udalaren ume eta gazteen zerbitzuaren menpekoak diren **aisialdi eta denbora libreko begiraleei prestakuntza ematea** Athletic Club Fundazioaren bitartez, berak eta Derioko Udalak sinatutako hitzarmenarekin bat etorriz, edo udaleko umeak babesteko ordezkariaren bitartez.
- **Baldintza teknikoen pleguetako klausulen bidez exijitzea ume eta nerabeekin harreman zuzena duten** kirol, aisialdi eta denbora libreko kontratueta **langileak prestatzeko betebeharra**.

## II. Parte-hartzea eta autonomia

Parte-hartzea eta autonomia sustatzea Umeen Eskubideen Hitzarmenaren zutabeetako bat da (NBE, 1989). Horrek esan nahi du erakunde publikoek bermatu behar dugula umeek edo nerabeek aske adierazi ahal izatea eragiten dieten egoerei buruz duten iritzia, eta umeen iritziak kontuan hartzea beraien adin eta heldutasunaren arabera (Umeen Eskubideen Hitzarmenaren 12. artikulua).

Horregatik, 2020tik aurrera Derioko Udala Haurren Hirien Sareko partaidea da. Sare hori kontzeptualki oinarrituta dago Umeen Hiria proiektuan, eta bere helburua da komunitateak berrezartzea ikaskuntza inguru osasungarri, partaidetu eta inklusibo gisa. Sare hau La Citta dei Bambini nazioarteko sarearen parte da era berean. Nagusiki Italian, Espainian eta Latinoamerikan kokatutako sarea da, eta 150 hiri eta herri baino gehiago daude bertan.

Haurren Hirien Sareko web orrian jasota dagoen moduan, proposamena bi ekintza zehatz hauetan oinarrituta dago:

- Umeen Kontseilua sortzea edo alkatearen eta ume talde baten arteko komunikazioa.
- Eskolabideak: eskolara lagunekaz proiektua martxan jartzea edo espazio komun publikoan umeekin batera elkarrekin bizitzea.

### **Parte hartzea**

Sortu den unean, Derioko Udaleko alkatea, Esther Apraiz, ziur dago ume eta nerabeek lagun dezaketela hiriko gobernua hobetzen. Beraz, ikaskuntza prozesu bat da arduradun politikoentzat, aniztasuna ulertzean eta horrekin harremanetan egotean datzana.

2020-2021 ikasturtean Derioko alkateak Umeen Kontseiluari proposatu zion antolatzeke nola parte hartu dezaketen ume eta nerabeek aurrekontu parte-hartzaileetan, izan ere, Euskadiko toki erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ez die bozketan parte hartzen uzten 16 urte baino gutxiagokoei, eta horrek urratu egiten ditu 1989an NBEko estatu kideek sinatu zuten Umeen Eskubideen Hitzarmenaren 12., 13., 14., 15., 16., eta 17. artikulua.

Practicumean egindako analisiarekin ondorioztatu denaren arabera, nahiz eta umeak eta nerabeak prozesuan sartu dituzten, benetan gutxik parte hartu dute. Beraz, 2021-2022 ikasturterako erronka da pentsatzea zein modutan sustatu daitekeen parte-hartzea.

### **Ekintzak**

- **UPV-EHUko “Unibertsitatea-Gizartea 2022-2024” proiektura atxikitzea.**
- **Jarraipen zehatzagoa egitea eta harreman estuagoa izatea umeen eta udalaren artean,** horrela, beharrezkoa den guztian gidatu, lagundu eta/edo aholkatu ahal izateko.
- **Komunikazio estrategia bat sortzea jakinarazteko** Derioko 7 urte baino gehiagoko umeek aukera izango dutela aurrekontu parte-hartzaileetan parte hartzeko, Umeen Kontseiluak egin duen lanari esker.

### **Autonomia**

Haurren Hirien Sareak “Haurren Hirien Sarea Red Ciudades de la Infancia de Euskadi” izeneko agirian jasotzen duen moduan, proiektu hau udalaren apustu bat da umeeek hirian mugitzeko duten autonomia berrezartzeko, hau da, beraien hiri edo herria modu autonomoan erabili ahal izateko esperientzia intimo eta pertsonalenak lapurtuak edo ukatuak izan gabe. Egoera hori guztiz arrunta zen orain dela hogeit hamar urteraino, baina gaur egun ezinezkotzat jotzen da.

Modu horretan, xehetasunez analizatu dira proiektua gauzatu zuen kanpo aholkularitzak 2021ean idatzi eta entregatu zuen txosteneko datuak. Txostena idazteko Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei bi inkesta egin zitzaizkien 2020 hasieran eta 2021ean, eta horietaz gain, umeekin izandako bileretan jasotako iritzi eta hausnarketak kontuan hartu zituzten baita ere (mapaketa, datuak ateratzea eta diagnosiak).

Alde batetik Derioko umeen mugikortasuna (etxetik eskolara duten bidea) eta beraien pertzepzioa (segurtasuna, distantzia eta autonomia), eta beste alde batetik bileretan jasotako hobekuntza eta esku-hartze behar eta proposamenak (datuak jasotzea eta diagnosiak) baliogarriak izango dira lanerako proposamen estrategiko bat egiteko hurrengo urteetarako Eskola Bideen inguruan. Uste dugu ideia oinarrizkoak jasotzen dituela eta hurrengo pauso logikoak eta Derion umeen autonomia indartzeko proiektuaren bilakaera jasoko da baita ere.

## **Ekintzak**

- **Behin betiko armiarma adosten eta kontzeptualizatzen bukatzea** udal teknikariek eta udaleko mugikortasun taldearekin.
- **Udal teknikariekin berrikusi eta identifikatzea** armiarma horretan oinarritutako esku-hartze eta hobekuntza posibleak.
- **Topaguneak seinaleztatzea**<sup>1</sup> (III. eta IV. eranskina)
- Hala badagokio, **umeeke proposatutako hiriko esku-hartzeak egitea**.
- **Umeeke antzemandako aktiboen mapa sortzea**. Umeeke sortutako mapaketa baten inguruan beraientzat garrantzitsuak diren hiriko espazioak (baliabideak, zerbitzuak eta abar) identifikatu eta lantzea.
- **Metrominutua kontzeptualizatzea**<sup>2</sup>. Bideen armiarma diseinatu eta gero “metrominutu” bat diseinatu behar dugu, hau da, mapa sinoptiko bat,

---

<sup>1</sup> Topaguneak: Eskolara bakarrik joaten diren umeeke elkarrekin batzen diren lekua da lagunekin eskolara joateko.

umeentzako balioa duten lekuak eta hiritik oinez egiteko ibilbide ohikoenak identifikatzeko.

- **Komunikazio estrategiak sortzea.** Komunikazio estrategia bat diseinatu eta sortzea ezinbesteko tresna izango da ideia martxan jartzeko, erabilera sustatzeko eta herritarren artean ezagutarazteko (mezuak, diptikoak, kartelak edo olanak, udal aldizkaria, prentsaurrekoak eta abar).
- **Metrominutua diseinatu eta ekoiztea.** Kontzeptua sortu ondoren, Metrominutuaren diseinua eta ekoizpena zehaztu behar dira paperean, euskarri digitalean eta abarrean.
- Eskolabideakeko **tokiko talde motorra eraikitzea.**

### III. Legeak

Aurretik aipatu bezala, proiektu honen legegintza esparruetako bat da Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (LOPIVI). Lege horrek zehazten du nola jardun behar den ume eta nerabeak babesteko. Estatu mailako legea da, eta horregatik egokitu egin behar da ume eta nerabeen arloan eskudunak diren beste erakundeetara.

Era berean, Umeen Eskubideen Batzordeak 5. Ohar Orokorrean deszentralizazioa gomendatu zuen. Hala ere, egia da ez duela bere maila ezartzen, baina autonomia erkidego, eta noski, toki mailara jaitsi behar da. Gainera, Clara Martínez García Comillasko Unibertsitateko errektoreorde eta Umeen Eskubideen Santander Katedrako kideak dioten bezala, «Legeak eskubideen ikuspegia jasotzen du eta erabateko lehentasuna ematen dio prebentzioari, eta lehenik eta behin udal arloan egin behar da». Horretaz gain, Pinheiro Munduko Txostenak (2006), umeen aurkako indarkeria motei buruzko lehen munduko ikerlanak, gomendio orokor batzuk ematen ditu. Horien artean daude prebentzioarekin eta sentsibilizazioarekin lotutakoak, eta toki erakundeen eskumenekoak dira baita ere.

Hala ere, practicumean ikusi den moduan, oso zaila da legeria zehatza aurkitzea toki eremuan umeak eta nerabeak babesteari dagokionez, eta horrelakorik aurkitzen dugunean, ia beti gizarte zerbitzuei eta babesgabetasunari lotuta egoten da, eta bakarrik populazioaren segmentu oso jakin bat lantzen du. Beraz, ezinbestekoa da Derioko

---

<sup>2</sup> Metrominutua: Informazio kartel bat da, eta Topagunearen eta Derioko Eskolaren arteko distantzien eta denboren informazioa ematen du.

Udalak egingo dituen ekintza guztiak kokatzea, eta horiek legerian babestuta egotea, legezko estaldura emanaz eta LOPIVI toki eremura egokituz.

### **Ekintzak**

- **Erakunde adierazpen bat onestea.** Bertan, Derioko Udala konprometituko da osotasunean umeak eta nerabeak babestera, eta San Mamesko Deklaraziora atxikitzen (V. eranskina).
- **Udalerriko ume eta nerabeen egoeraren** eta eskuragarri dituzten baliabideen **analisi egitea.**
- **Ume eta nerabeen udal plana idaztea.**
- **Udal ordenantza bat idaztea** ume eta nerabeen eskubideei buruz.

### **IV. Detekzio goiztiarra eta indarkeria kasuetarako jarduketa eta prestaketa**

Ban Ki-moon Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak 2013ko urrian esan bezala “Indarkeria mehatxutik libre egonik, umeek beraien trebetasun eta gaitasunak maila gorenean garatu eta etorkizun propioa eraiki dezakete. Aldaketa positiboak egiteko aukera izugarriak daude, baina gaur egun indarkeriak orokorra eta etengabea izaten jarraitzen du eta milioika umeen bizitzak suntsitzen ditu, komunitate osoak mehatxatzen ditu eta garapen jasangarriko eta gizarte aurrerapeneko aukeren aurka egiten du”.

Zalantzarik gabe toki erakundeok adingabeak indarkeriarik gabe eta modu integralean garatzeko espazioa sortu behar dugu, beraien ongizatea arriskuan jartzen ez duena. Horregatik, lehentasunez egin behar den ekintzetako bat da analizatzea zeintzuk diren gure erakundeetan umeen ongizatea arriskuan jartzen duten egoerak, jokaerak edo elementuak.

Analisi hori xehetasunez eta modu espezifikoan egin behar da, eta arriskuen plantilla batean zehaztu behar da. Beraz, jarduera, espazio eta prozedura guztiak analizatu behar dira adierazleak eta egiaztapen iturriak barne, eta horrela zehaztuko dira prebentzio plan espezifikoak.

Era berean, jokaera desagokiek edo axolagabeek, sarreran ikusi dugun bezala, kostu oso handia dute gizarte, giza eta ekonomia arloetan, horiek gertatzen diren erakundeetan sortzen dituzten ondorioez gain. Horregatik erakunde guztiak behartuta daude eta beraien politikan berariaz jasota egon behar da, alde batetik erakunde arriskuen analisia

egiten dela, eta bestetik, jardueren arrisku espezifikoaren analisia gauzatzen dela. Edonola ere, nahiz eta prebentzio ekintzak egin babesgabetasun egoerek jarraitzen badute, modu egokian eta ahalik eta denbora laburrenean erantzun beharra dago.

## **Ekintzak**

- **Kirol instalazioen arriskuen analisia egitea** (VI. eranskina)
- **Ludotekaren arriskuen analisia egitea.**
- **Gaztelekuaren arriskuen analisia egitea.**
- **Kultur Etxearen arriskuen analisia egitea.**
- **Ekintza plana sortzea** aurretik detektatu ditugun arrisku egoeretarako.
- **Jarduketa protokolo bat sortzea** udal zerbitzuetan gerta litezkeen indarkeria kasuetarako.
- **Jarduketa eta koordinazio protokolo bat sortzea** udalerriko kirol elkarte eta klubetan gerta litezkeen indarkeria kasuetarako.

## **V. Komunikazioa**

Gaur egun erakunde baten arrakastan gehien eragiten duen faktoreetako bat komunikazioa da. Beraz, arrakastaren oinarria ez da bakarrik zerbitzuaren kalitatea, baizik eta kanpoko eta barneko komunikazio ona baita ere. Horrenbestez, komunikazio prozeduraren lehentasunezko helburua da bestearen gainean efektu bat sortzea. Efektu horiek hartzaileak mezua jaso eta gero izaten dituen jokaera, jarrera eta/edo ideia aldaketak dira.

Kanpoko komunikazioa azpimarratuz, Guzman Pazek (2012) honela definitzen du: “Edozein erakundek bere kanpoko publikoei zuzendutako mezuen multzoa da, eta beraien helburua da erakundeekin harremanak mantendu edo hobetzea, irudi ona proiektatzea edo beraien produktuak edo zerbitzuak promozionatzea”.

Horrek guztiak ez luke zentzurik izango Derioko Udalak komunikazio planik izango ez balu (barnekoa zein kanpoko), eta horri esker, langileek eta herritarrek jakingo dute zeintzuk diren erakundeak ume eta nerabeekiko dituen balio eta helburuak. Horregatik ezinbestekoa da erakundearen baliabideak modu antolatu eta estrategikoan planifikatzea

konfiantza sortzeko, zalantzak gutxitzeko eta ume eta nerabeak babestearekin lotutako ekintzetan parte hartzeko.

## **Ekintzak**

- **Barne komunikazioko plan bat sortzea.**
- **Kanpo komunikazioko plan bat sortzea.**

## **6. Ondorioak**

Zalantzarik gabe ume eta nerabeen babesa integrala izan behar da legearen izenak berak dioen bezala, eta erakunde baten arlo guztiak barne hartu behar ditu. Hala ere, udalerritxikiek, besteak beste Deriok, arazoak izan ditzakete ume eta nerabeak zaintzen dituzten proiektuak berrezartzeko, izan ere, langile kualifikatu gutxi daude eta zaila da proiektua gidatu behar duen eremua esleitzea. Horregatik ezinbestekoa da teknikariei prestakuntza ematea umeak eta nerabeak babestearen arloan eta erakundeko babes ordezkaria izendatzea, izan ere, berak gidatuko du prozesua. Horixe da gauzatu behar den lehen pausoa gai horri lotutako politikak eta ekintzak sortzeko.

Horretaz gain, beharrezkoa da politikariak benetan konprometitzea, izan ere, beraiek dira gutxienez hurrengo lau urteetarako lerro estrategikoak proposatuko dituztenak. Aurrekoa gorabehera, gai honek ez du eztabaidarik sortu behar, izan ere, ume eta nerabeen eskubideak bermatu eta beraien aurkako indarkeriarik gabeko politikak sortzea ezin da izan inolaz ere eztabaida politikorako gaia. Horregatik oso gomendagarria da Osoko Bilkurak erakunde adierazpen bat onestea udalerria arlo horretan kokatzeko eta etorkizunerako konpromisoak ezartzeko. Horrez gain, beharrezkoa da ume eta nerabeentzat eskuragarri dauden baliabide eta zerbitzuak eta arriskuak zorrotzago analizatzea, eta horrekin guztiarekin prebentzio plan bat sortzea.

Azkenik, eta “izenik ez duena ez omen da” leloari jarraiki, garrantzitsua da ume eta nerabeak babesteko egiten diren ekintza guztiak agiri batean jasota egotea, kasu honetan bezala, eta modu efikaz eta eragingarrian komunikatuak izatea, are gehiago udalerritxikien kasuan, aurretik aipatu dugun bezala. Horregatik sortu behar da barneko eta kanpoko komunikazio plan bat, modu zorrotzagoan azaltzen dituen arlo horretan diseinatutako ekintzak.



## 7. Bibliografia

- Ansede Espiñeira, P. (2010). La comunicación en las organizaciones en la sociedad del conocimiento. Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de A Coruña.
- Derioko Udala (2020ko martxoa). 2019-2023 urteetako Kudeaketa Plana. [https://www.deriokoudala.net/es-ES/Ayuntamiento/Estrategia-Planificacion/PlanesdeGestion/plan\\_gestion\\_derio\\_19\\_23\\_CAS\\_WEB\\_baja\(1\).pdf](https://www.deriokoudala.net/es-ES/Ayuntamiento/Estrategia-Planificacion/PlanesdeGestion/plan_gestion_derio_19_23_CAS_WEB_baja(1).pdf)
- Carta municipal de los derechos del niño y la niña (2000). Prodeni. [http://www.prodeni.org/carta\\_municipal.htm](http://www.prodeni.org/carta_municipal.htm)
- Davies, C., & Ward, H. (2012). Safeguarding children across services: Messages from research. Jessica Kingsley Publishers.
- Haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia (2022ko apirilak 1). Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/infancia>
- Espainiako Gobernua. (2021eko ekainak 4). BOE.es - BOE-A-2021-9347/8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Ume eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesten dituenak. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2021-9347>
- Haurren Hirien Sarea. (2017). Haurren Hirien Sarea proiektua. [www.haurrenhiria.eus](http://www.haurrenhiria.eus). <https://www.haurrenhiria.eus/el-proyecto-haurren-hiria/>
- Rhind, D., McDermott, J., Lambert, E., & Koleva, I. (2015). A review of safeguarding cases in sport. Child Abuse Review, 24(6), 418-426. UNICEF Espainiako Batzordea. (2006ko ekaina). Umeen eskubideen hitzarmena. UNICEF.
- <https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>
- UNICEF. 2021eko abendua. Toki eremutik Espainian Europako Umeen Bermea ezartzeko gomendioak. [https://ciudadesamigas.org/wp-content/uploads/2022/03/UNICEF\\_Esp\\_Recom\\_Policy\\_brief\\_gobernanza-1.pdf](https://ciudadesamigas.org/wp-content/uploads/2022/03/UNICEF_Esp_Recom_Policy_brief_gobernanza-1.pdf)
- Vila Merino, E., Cortés González, P., & Martín Solbes, V. (2021). Transferencia social desde la evaluación de políticas públicas: la construcción compartida de un plan estratégico municipal de servicios sociales y acción comunitaria desde

## 8. Eranskinak

### I. Ekintzen taula

ESPARRUA	EKINTZA	ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	EGINDA?
<b>Prestakuntza</b>	Herritarren teknikaria prestatzea. Graduondokoa)	Derioko Udaleko giza baliabideak	Bakarra	Martxan
	Herritarren, lurraldearen eta antolamenduaren arduradunak prestatzea. HAEEko ikastaroa	Derioko Udaleko giza baliabideak	Bakarra	Ez
	Udalerriko klubetako langileak prestatzea Athletic Club Fundazioaren bidez	Babes arduraduna	Urtekoa	Bai
	Prestakuntza exijitzea baldintza teknikoen pleguetako klausulen bidez	Babes arduraduna	Plegu bakoitzean	Martxan
<b>Parte-hartzea eta autonomia</b>				
	Jarraipen zorrotzagoa egitea	Babes arduraduna + Alkatetza	Urtekoa	Bai
	Komunikazio estrategia sortzea. Umeen Kontseilua	Babes arduraduna + Alkatetza	Urtekoa	Bai
	Behin betiko armiarma adosten eta kontzeptualizatzen bukatzea	Babes arduraduna	Bakarra	Bai
	Arduradun teknikoekin berrikusi eta identifikatzea	Mugikortasuneko talde motorra	Bakarra	Bai
	Topaguneak seinalezatzea	Babes arduraduna	Bakarra	Bai
	Hirigintza esku-hartzeak egitea	Lurralde arduraduna	Urtekoa	Martxan
	Umeek antzemandako aktiboen mapa sortzea	Babes arduraduna	Bakarra	Bai
	Metrominutua kontzeptualizatzea	Mugikortasuneko talde motorra	Bakarra	Martxan
	Eskolabideak komunikazio strategiak sortzea	Babes arduraduna + Alkatetza	Urtekoa	Martxan
	Metrominutua diseinatu eta ekoiztea	Mugikortasuneko talde motorra	Bakarra	Martxan
	Eskolabideakeko tokiko talde motorra sortzea	Alkatetza	Bakarra	Bai
	EHUko “Unibertsitatea-Gizartea 2022-2024” proiektura atxikitzea.	Babes arduraduna	2 urte	Bai
<b>Legeak</b>				
	Erakunde adierazpena onestea	Babes arduraduna + Alkatetza	Bakarra	Bai
	Umeen eta nerabeen egoeraren analisia egitea	Babes arduraduna	5 urte	Ez
	Ume eta nerabeen udal plana idaztea	Babes arduraduna + Alkatetza	4 urte	Ez
	Udal ordenantza idaztea	Antolamendu arduraduna + Alkatetza + Babes arduraduna	Bakarra	Ez

<b>Prebentzioa, jarduketa eta konponketa</b>				
	Kirol instalazioen arriskuen analisisa egitea	Babes arduraduna	Urtekoa	Bai
	Ludotekaren arriskuen analisisa egitea	Babes arduraduna	Urtekoa	Ez
	Gaztelekuaren arriskuen analisisa egitea	Babes arduraduna	Urtekoa	Ez
	Kultur Etxearen arriskuen analisisa egitea	Babes arduraduna	Urtekoa	Ez
	Prebentzio plana sortzea arrisku egoeretarako	Babes arduraduna	Jar. Urtekoa	Ez
	Jarduketa protokolo bat sortzea udal zerbitzuetan gerta litezkeen indarkeria kasuetarako.	Babes arduraduna	Bakarra	Ez
	Jarduketa protokolo bat sortzea udal zerbitzuetan gerta litezkeen indarkeria kasuetarako.	Babes arduraduna	Bakarra	Ez
	Jarduketa eta koordinazio protokolo bat sortzea udalerriko kirol elkarte eta klubetan gerta litezkeen indarkeria kasuetarako.	Babes arduraduna	Bakarra	Ez
<b>Komunikazioa</b>				
	Barne komunikazioko plan bat sortzea	Babes arduraduna + Alkatetza + Kanpoko enpresa	2 urte	Ez
	Kanpo komunikazioko plan bat sortzea	Babes arduraduna + Alkatetza + Kanpoko enpresa	2 urte	Ez

## II. HAEEko ikastaroa

### UMEEI ETA NERABEEI INDARKERIAREN AURREAN BABES OSOA EMATEKO EKAINAREN 4KO 8/2021 LEGE ORGANIKOA. INFORMAZIO OROKORRA.

EGUNAK maiatzak 2 eta 3. LEKUA/ARETOA Bilbo. HAEEren egoitza (Rekalde zumarkalea, 18)  
IRAUPENA 10 ordu. ORDUTEGIA 09:00-14:00

**MATRIKULA EGITEKO EPEA** apirilak 15era arte

**BAJEN ABISUAK** (ez du barne hartzen matrikularen kostua): maiatzak 1

**NORI DAGO ZUZENDUTA** Gizarte Zerbitzuen arloko langileak

**HAUTAKETA IRIZPIDEAK--**

**GEHIENEO EDUKIERA.** 30 pertsona **HIZLARIAK** Miguel Angel Hurtado Pedroso

### ZER LORTU NAHI DA

#### HELBURU OROKORRAK

Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak sartutako berritasunak ezagutzea adingabeak zaindu eta babestearen arloan kontuan har daitezten, eta

gizarte zerbitzuen arloko lanean aplikatzea ume eta nerabeak babesteari lotutako eginkizunak gauzatzean.

#### IKASLEEN HELBURUAK

- Indarkeriaren biktima diren ume eta nerabeei berriaz aitortutako eskubideak ezagutzea.
- Ikasleei ezagutaraztea zeintzuk diren indarkeriaren biktima diren ume eta nerabeei sortutako kalteak konpontzeko eta sensibilizatzeko, prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta babeserako neurriak.
- Ezagutaraztea zeintzuk diren indarkeriaren biktima diren ume eta nerabeak modu integralean zaindu eta babesteko egituratzen diren askotariko neurriak.
- Gizarte zerbitzuen arloko neurriak ezagutzea eta jakitea zein irismenekin eragin dezaketen eguneroko lanean.

#### ESKUMENAK

Prestakuntza ekintza amaituta, ikasleak hau guztia egiteko gai izango dira:

- EAEn haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruz aplikatzekoa den araudia identifikatzea.

- Jakitea zeintzuk diren Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak ematen dituen alderdi giltzarriak eta zein eragin duten gizarte zerbitzuen arloan.
- Ume eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurreko babes jarduketak bereiztea gizarte zerbitzuek egiten dituzten ume eta nerabeak babesteko bestelako eginkizunetatik.

## **PROGRAMA ETA EBALUAZIOA**

### **METODOLOGIA** Azalpen teorikoa

#### **PROGRAMA**

1. Sarrera: adingabeak eskubidedun subjektu titular gisa aitortzea.
2. Hurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruz aplikatzekoa den araudia.
3. Indarkeriaren kontzeptua eta gizarte babesgabetasunarekin duen lotura.
4. Ume eta nerabeen aurkako indarkeria egoerak komunikatzea.
5. Jarduketa mailak: sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra.
6. Jarduketa eremuak: familia, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, teknologia berriak, kirola eta aisialdia eta segurtasuna (poliziala).
7. Gizarte zerbitzuen arloko babesa.
8. Adingabeak babesteko zentroetan jarduketak egitea babes integrala bermatzeko.
9. Ume eta nerabeen aurkako indarkeria egoeren informazioa jasotzea.

#### **EBALUAZIOA**

**Ebaluazioaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokorrak eta espezifikoak betetzen direla bermatzea.

**Ebaluazioak hauek izango ditu:** Test motako proba, hainbat erantzun posible dituzten 12 galderekin. Azken saioaren bukaeran egingo da eta 35 minutu iraungo ditu. Erantzun okerrak ez dira zigortuko. Proba gainditzeko galderen % 80ri zuzen erantzun beharko zaie (10 galdera). Azken kalifikazioa GAI/EZ GAI izango da.

#### **IKASTAROA BALORATZEA**

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakasleak baloratzeko inkesta

#### **ZIURTAGIRI DIGITALA: APROBETXAMENDUA**

Bete beharreko betekizunak:

- % 80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea



**Ziurtagiri digitala** eskuragarri egongo da mezu elektronikoa jasotzen denetik aurrera. Sartu "Izapideak HAEERekin", "Ziurtagiriak" atalean.

#### **PREZIOA**

114 € (2014ko abenduaren 11ko AGINDUA, Administrazio publiko eta justizia kontseilariarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituenena).

### III. Topaguneak

Zenb. Topagunea	Izen-abizenak Topagunea	Lekua	Argazkia
1.	Hilerria	Santimami auzoa, 4	
2.	Colchonería Azpili	Mungialde etorbidea, 15	
3.	Polikiroldegia	Unbe kalea, 15 (Kolitza Plaza)	
4.	Txus Txutxedenda	Gernikako Arbola etorbidea, 5	
5.	Farmazia	Gernikako Arbola etorbidea, 8	
6.	Eskolako Errotonda	Gernikako Arbola etorbidea, 14	
7.	Udaletxea	Euskal Herria Kalea, 1	

8.	Kebab	Euskal Herria Kalea, 6	
9.	Irrintziren Kalea	Urkiola Kalea/Pº de Larrabarri	

#### IV. Topaguneko logoa



## V. Erakunde adierazpena

### Derioko Udalaren erakunde adierazpena

Ume guztiek eskubidea dute kirola egiteko eta aisialdi osasungarriaz disfrutatzen. Hainbat nazioarteko hitzarmenetan jasota dagoen eskubidea da, Umeen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenean barne (31. artikulua). Kirola, aisialdia eta denbora librean umeen garapenerako espazio garrantzitsuak dira. Oinarrizko eskubidea izateaz gain, erakunde publikoek bermatu behar dugu praktika segurua eta osasuntsua dela eta ongizatea sortzen duela egiten dutenentzat, umeen aurka egin daitezkeen indarkeria mota guztiak prebenitu eta ekidinez.

Kontuan hartuta kirola egiten duten ume guztiak eskubidedun subjektuak direla eta umeek kirol eta aisialdi osasungarriaz disfrutatzen dutela, gure erakundeak konpromisoa hartzen du irmoki bermatzeko gure udalerrian antolatu edo egiten diren eta umeek modu iraunkor edo puntualean parte hartzen duten kirol, aisialdi eta denbora libreko jarduerak guztiek umeen eskubideak eta babesa kontuan hartuko dituztela. Aisialdi eta kirol jarduerak egiten dituzten umeak babesteko erakundeek duten erantzukizun moral eta legala ulertu eta geure gain hartzen dugu. Horrekin lotuta, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Progresiboki lanean hasia umei eragiten dieten arlo guztietan umeak babesten.
- Umeak babesteari lehentasuna ematea gure udalerriko kirol, aisialdi eta denbora libreko jardueretan.
- 2022an umeak babesteko estrategia bat izatea hauek kontuan hartuta: arriskuak prebenitzeko ekintzak, prestakuntza espezifikoa gure profesional eta klubentzat eta jarduketara protokolo egokiak izatea.
- Gure udalerriko erakundeak babestu eta aholkatzea arlo honetan.
- San Mamesko deklarazioa babestu eta horri atxikitzea: “Aisialdian eta kirolean umeak babestu eta ongi tratatzeko erantzukizuna geure gain hartuz”.

San Mamesko deklarazioa: [https://cms.athletic-club.eus/uploads/2020/11/Declaracion-SanMames\\_v2.pdf](https://cms.athletic-club.eus/uploads/2020/11/Declaracion-SanMames_v2.pdf)



## VI. Arriskuen analisia

DERIOKO UDAL KIROLDEGIA (DUK)						
SAILA/ARLOA	ARRISKUA	EZARRITAKO/PLANIFIKATUTAKO EKINTZA	ADIERAZLEA	EGIAZTAPEN ITURRIA	ARDURADUNA	ARRISKU MAILA
ZERBITZUA	Indarkeria egoerak gertatu eta zaintza ordezkararen figurarik ez dagoelako ez jarduteko arriskua	Kirol teknikaria prestatzea umeak babestearen arloan.	Kirolean umeak babesteko prebentzioko graduondokoa iradokitzea.	UPV/EHUko titulazioa entregatzea.  Testa egitea ikastaroaren aurretik eta ondoren, bilakaera ikusteko.	Kirol teknikaria  Udaleko idazkaritza	BAXUA
	Arriskuen analisirik ez dagoelako adingabeen ongizatea arriskuan jartzeko arriskua.	Arriskuen analisia egitea zerbitzuaren eta ekipamenduaren egoera ebaluatzeko.	Athletic Fundazioarekin batera instalazioko arriskuen analisia egitea.	Espedientean kudeatzailen erregistro tutako arriskuen analisiaren agiria.	Kirol teknikaria  Athletic Club Fundazioa	ALTUA
	Jokabide desegokiak izatearen arriskua ez dagoelako jokabide koderik	Jokabide kodea sortzea	Athletic Fundazioarekin batera jokabide kodea idaztea barneko langileentzat eta kanpoko enpresentzat.	Espedientean kudeatzailen erregistro tutako jokabide kodea.	Kirol teknikaria  Athletic Club Fundazioa  Kirol zinegotzigoa	ERTAINA
KIROL INSTALAZIOA	Sexu indarkeriaren arriskua aldagelak ez daudelako bereizita heldu eta adingabeentzat	Komunak aldatzea aztertzea	Ume eta helduentzako bereizitako komunak jartzea.	DUKeko planoak  Behaketa zuzena	Kirol teknikaria  Udal arkitektoa  Kirol zinegotzigoa  Alkatetza	ERTAINA
	Erortzeko arriskua zoru	Txostena bidaltzea bulego	Produktu irristagaitza	Behaketa zuzena	Kirol teknikaria	ERTAINA

	<b>irristakorrarengatik</b>	teknikora egoera berrikusteko.	jartzea.	Begiraleei galdetzea zenbat eroriko gertatu diren  Erabiltzail eei galdetzea	Bulego teknikoa	
	<b>Ebakiak izateko arriskua igerilekuko zoruko baldosak apurtuta daudelako</b>	Txostena bidaltzea bulego teknikora egoera berrikusteko.	Apurtutako baldosa guztiak aldatzea	Behaketa zuzena  Begiraleei galdetzea zenbat ebaki gertatu diren  Kanpoko enpresaren konponketa txostena	Kirol teknikaria  Bulego teknikoa	<b>ERTAINA</b>
	<b>Igerilekuko konpentsazio ontziko saretak altxatuta daudelako gertatutako ebaki/erorikoen arriskua</b>	Mantentze lanak egiten dituen kanpoko enpresari txostena bidaltzea	Sareta guztiak aldatzea	Behaketa zuzena  Kanpoko enpresaren konponketa txostena	Kirol teknikaria  Kanpoko enpresa	<b>ERTAINA</b>
	<b>Aldageletan telefono mugikorrekin grabatzeko arriskua</b>	Aldageletan mugikorrek erabiltzea debekatzea.	Kartelak jartzea aldagelen sarreretan  Erabiltzaileei informazioa ematea mezu elektronikoen bidez.	Erabiltzail eei inkestak egitea	Kirol teknikaria  Datuak babesteko ordezkaria	<b>ALTUA</b>
	<b>Pistan itoginak daudelako erortzeko arriskua</b>	Txostena bidaltzea bulego teknikora baloratu eta	Pabiloiko estalkia aldatzea.	Erregistratutako erorikoen kopurua	Kirol teknikaria  Bulego teknikoa	<b>ALTUA</b>

		konpontzeko		Behaketa zuzena  Obra egiten duen kanpoko enpresaren txostena		
	<b>Sexu indarkeria arriskua, komunitaria eta aldageletara joateko pasabidean edozein egon daitekeelako</b>	Debekatu pasabide komunitarian egotea.	Jarri kartelak debekuaren berri emateko.  Mezu elektronikoak bidali erabiltzaileei debekua jakinarazteko.	Behaketa zuzena.	Kirol teknikaria  Ateko langileak.	<b>ERTAINA</b>
	<b>Irudiak behar ez bezala erabiltzearen arriskua, kiroldegiko pistari argazkiak ateratzeko baimena eman delako adingabeak entrenatzen edo jokatzeko ari direnean</b>	Debekatu kiroldegiko pistari argazkiak ateratzea adingabeak bertan daudenean	Jarri kartelak debekuaren berri emateko.  Jakinarazi debekua klub eta ikastetxei	Behaketa zuzena		<b>BAXUA</b>
	<b>Irudiak behar ez bezala erabiltzearen arriskua, leihotik igerilekuari argazkiak ateratzeko baimena eman delako</b>	Debekatu igerilekuari argazkiak ateratzea adingabeen igeriketara ikastaroetan.	Jarri kartelak debekuaren berri emateko.  Bidali mezu elektronikoak igerilekuko ikastaroen abonatuari.	Behaketa zuzena		<b>BAXUA</b>
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	<b>Datuak filtratzeko arriskua, umeen datuak behar ez bezala erabili direlako.</b>	Adingabeen datuak tratatzeko baimen agiria sortu eta aplikatzea.	Familia guztiek sinatzea (guraso guztiek)	Espedientean kudeatzailean erregistratutako	Kirol teknikaria  Datuak babesteko ordezkaria	<b>BAXUA</b>

				datuak babesteko agiria.		
	<b>Familiaren baimenak falta direlako adingabe bat ez dagokion helduari emateko arriskua</b>	Agiria sortu eta aplikatzea, legezko tutoreek baimena ematen dutena adingabea jasotzeko.	Aita, ama edo tutorea ez den beste pertsona bat adingabea jasotzera datorren bakoitzean baimen agiria guzti-guztiek sinatzea	Adingabea jasotzeko familiaren baimen agiria, espedientean kudeatzailen erregistroa tutakoa.	Kirol teknikaria UTE Jaso-Ebone (begiraleen kanpoko enpresa) Datuak babesteko ordezkaria (kanpoko enpresa)	<b>ALTUA</b>
	<b>Sare sozialetan baimenik gabe umeen irudiak argitaratzeko arriskua</b>	Adingabeen datuak tratatzeko baimen agiria sortu eta aplikatzea.	Agiria sortzea datuak babesteko ordezkariarekin batera  Familia guztiek sinatzea (guraso guztiek)	Espedientean kudeatzailen erregistroa tutako irudiak tratatzeko agiria.	Kirol teknikaria Datuak babesteko ordezkaria (kanpoko enpresa)	<b>ALTUA</b>
<b>BEGIRALEAK</b>	<b>Ekintza desegokiak egitearen arriskua, ez izatearren adingabeak babesteko prestakuntzarik</b>	Kanpoko begiraleak prestatzea adingabeak babestearen arloan.	Kirolean umeak eta nerabeak babesteko ikastaroa egitea	Testa egitea ikastaroaren aurretik eta ondoren, bilakaera ikusteko.  Ikastaroa aprobetxatzeko ziurtagiria eskatzea.	Kirol teknikaria Kanpoko enpresa	<b>ALTUA</b>
<b>KANPOKO ENPRESAK</b>	<b>Sexu indarkeria arriskua, ez dugulako eskatzen delitu sexualen ziurtagiriaren kopia</b>	Dokumentazio errekerimendua bidaltzea.	Azpikontrataturako enpresa guztiek dokumentazioa bidaltzea	Kanpoko enpresek bidalitako dokumentazioaren erregistroa espedientean kudeatzailen	Kirol teknikaria Kanpoko enpresa	<b>ALTUA</b>

	<b>Jokabide desegokiak izatearen arriskua, ez dugulako eskatzen jokabide kodeari atxikitzea</b>	Bidali jokabide kodea sinatzeko eskaria.	Azpikontrataturako enpresa guztiek sinatzea	Kanpoko enpresek sinatutako dokumentazioaren erregistroa espedienteen kudeatzailean  Kontratu eta lizitazioetan klausulak sartzea, derrigortzen duena jokabide kodeari atxikitzea.	Kirol teknikaria  Kanpoko enpresa  Alkatetza  Administrazio orokorreko teknikaria (AOT)	<b>ERTAINA</b>
--	---	--	---	--	---	----------------